



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía
Circular

Ebazpena, 2024ko martxoaren 13koa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, Donostiako HAPoren ZU.05 Bugati HEaren Plan Partzialaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiten duena.

AURREKARIAK

2024ko urtarrilaren 24an, Donostiako Udalak eskabide bat aurkeztu zuen, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan, Donostiako HAPoren ZU.05 Bugati HEaren Plan Partzialaren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua emateko, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legeari eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeari jarraikiz.

Honako dokumentu hauek erantsi zaizkio eskabideari: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. eranskineko formularioa.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen 2024ko urtarrilaren 17an, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, Donostiako Udalari ere jakinarazi zitzaion izapide-prozesuaren hasiera.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, haren inguruan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki iritzitako oharra egiteko.

Txostenak jasotzeko indarrean dagoen legerian ezarritako epea bukatuta eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan xedatutakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, ingurumenean eragin nabarmena izan dezaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautzeko, eta ingurumena ondo babestea, garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako plan eta programei, bai eta haien aldaketei eta berrikuspenei ere (II.A eranskinean zerrendatu dira), legeko edo erregelamenduzko xedapen batek edota Gobernu Kontseiluaren erabaki batek beharturik prestatu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera lege behartutako proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta eranskin horren 6. apartatuan jasotako arloei buruzkoak badira.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikulua xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Bestalde, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 18.1 artikuluan xedatzen du irismen-dokumentua hasteko eskabideari zer dokumentu erantsi behar zaizkion, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Lege horri aurka egiten ez dioten alderdietan, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu etaosatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Azkenik, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukari buruzkoak, baita 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II.

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.



LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T5M0T-K168

EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea> / <https://euskadi.eus/localizador>

SINATZAILE / FIRMANTE: AITOR ALDASORO ITURBE | 2024/04/12 11:31:40

eranskinetan jasotakoak ere, erreferentzia-dokumentuaren edukiaren ingurukoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiaren ingurukoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu, eta honako hauek guztiak ikusi dira: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Ingurumen-ondorioetarako soilik, Donostiako HAPOn ZU.05 Bugati HEaren Plan Partzialaren (aurrerantzean, Plana)ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua egitea, baldintza hauekin:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak ZU.05 Bugati HEa Merkabugati merkatu nagusiaren, Realak Zubietan dituen kirol-instalazioen, Lasarte-Oriako hipodromoaren eta N-1 errepidearen artean mugatzen du, 71.274 m²-ko azalerarekin, plan partzial baten bidez garatu beharreko hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarri sektorizatuko erreserba gisa. Indarrean dagoen HAPOk hirugarren sektoreko erabilerako jarduera ekonomikoetarako lurzoruetako (B.20) 58.666 m² eta komunikazio-sistema orokorreko lurzoruetako (E.10) 12.608 m² kalifikatzen ditu.

Planaren xedea da eremua arautzeko parametroak zehaztea, Merkabugatiko eremuaren jarraian garatzeko, indarrean dagoen plangintzarekin bat etorritik, bai eta eremuko barne-bideen definizioa (ZU.06 sektorean proiektatutakoarekin lotuta) eta N-1 errepidearekiko lotura zehaztea ere. Ildo horretan, sektorearen eraikigarritasuna HAPOn fitxan definituta dago, eta 30.000 m² (t) da. Xede hori lortzeko, hirugarren sektoreko hamar lurzati formalizatu dira (b.20/5.1 eta b.20/5.10 artean), ZU.06-tik aurrera luzatzen den erdiko bidearen (E.10) definiziotik abiatuta. Hona hemen zehaztutako lurzatiak:

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • <u>P1 (b.20/5.1)</u>
Azalera: 2.499 m²(s)
Sestra gaineko eraikigarritasuna: 2.007 m²(t)
Sestra azpiko eraikigarritasuna: 3.512 m²(t)
Profila: Sestra gaineko hiru solairuko eta sestra azpiko hiru (3) solairuko gehieneko profila ezarri da Erlaitzaren altuera: 12 m | <ul style="list-style-type: none"> • <u>P6 (b.20/5.6)</u>
Azalera: 4.182 m²(s)
Eraikigarritasuna: 3.915 m²(t)
Sestra azpiko eraikigarritasuna: 6.851 m²(t)
Profila: Sestra gaineko hiru solairuko eta sestra azpiko hiru (3) solairuko gehieneko profila ezarri da.
Erlaitzaren altuera: 12 m |
| <ul style="list-style-type: none"> • <u>P2 (b.20/5.2)</u>
Azalera: 5.393 m²(s)
Eraikigarritasuna: 4.468 m²(t)
Sestra azpiko eraikigarritasuna: 7.819 m²(t)
Profila: Sestra gaineko hiru solairuko eta sestra azpiko hiru (3) solairuko gehieneko profila ezarri da.
Erlaitzaren altuera: 12 m | <ul style="list-style-type: none"> • <u>P7 (b.20/5.7)</u>
Azalera: 4.085 m²(s)
Eraikigarritasuna: 3.562 m²(t)
Sestra azpiko eraikigarritasuna: 6.234 m²(t)
Profila: Sestra gaineko hiru solairuko eta sestra azpiko hiru (3) solairuko gehieneko profila ezarri da.
Erlaitzaren altuera: 12 m |
| <ul style="list-style-type: none"> • <u>P3 (b.20/5.3)</u>
Azalera: 2.752 m²(s)
Eraikigarritasuna: 1.000 m²(t)
Sestra azpiko eraikigarritasuna: 1.750 m²(t)
Profila: Sestra gaineko hiru solairuko eta sestra azpiko | <ul style="list-style-type: none"> • <u>P8 (b.20/5.8)</u>
Azalera: 1.549 m²(s)
Eraikigarritasuna: 1.423 m²(t)
Sestra azpiko eraikigarritasuna: 2.490 m²(t)
Profila: Sestra gaineko hiru solairuko eta sestra azpiko |

hiru (3) solairuko gehieneko profila ezarri da.
Erlaitzaren altuera: 12 m

- P4 (b.20/5.4)
Azalera: 3.740 m²(s)
Eraikigarritasuna: 3.617 m²(t)
Sestra azpiko eraikigarritasuna: 6.329 m²(t)
Profila: Sestra gaineko hiru solairuko eta sestra azpiko
hiru (3) solairuko gehieneko profila ezarri da.
Erlaitzaren altuera: 12 m

- P5 (b.20/5.5)
Azalera: 4.258 m²(s)
Eraikigarritasuna: 4.150 m²(t)
Sestra azpiko eraikigarritasuna: 7.262 m²(t)
Profila: Sestra gaineko hiru solairuko eta sestra azpiko
hiru (3) solairuko gehieneko profila ezarri da.
Erlaitzaren altuera: 12 m

hiru (3) solairuko gehieneko profila ezarri da.
Erlaitzaren altuera: 12 m

- P9 (b.20/5.9)
Azalera: 3.176 m²(s)
Eraikigarritasuna: 2.838 m²(t)
Sestra azpiko eraikigarritasuna: 4.967 m²(t)
Profila: Sestra gaineko hiru solairuko eta sestra azpiko
hiru (3) solairuko gehieneko profila ezarri da.
Erlaitzaren altuera: 12 m

- P10 (b.20/5.10)
Azalera: 3.052 m²(s)
Eraikigarritasuna: 1.000 m²(t)
Sestra azpiko eraikigarritasuna: 1.750 m²(t)
Profila: Sestra gaineko hiru solairuko eta sestra azpiko
hiru (3) solairuko gehieneko profila ezarri da.
Erlaitzaren altuera: 12 m

Gehieneko lerrokadurak eta lurzati bakoitzeko gehieneko eraikin-profila definituta planteatu da eraikuntza, bai eta baimendutako gehieneko eraikigarritasuna definituta ere, eta erabileraren ezarpen zehatza proiekturako utzi da, hiru parametro horietatik abiatuta. Malgutasuna eman zaie lurzatiei, eta zatitu ahal izango dira, gero hobeto kudeatzeko (lizentzia bidezko zatiketa horizontalaren modalitatean edo birpartzelazio-proiektuaren testuinguruan); hori guztia, gutxieneko azalera batekin eta jabetza horizontaleko gutxieneko elementu batzuekin.

Planak bide-komunikazioko sare berri bat garatu du, lau erreiko bide-sistema orokor bat (E.10) eta lurzati arteko komunikazio-sistema lokal bat (e.10/5.1 eta e.10/5.4 artean) barne hartzen dituen. Kontuan izan behar da ZU.05 sektorea garatzeko baldintza direla ZU.06-ko errepidearen trazadurarekiko jarraitutasuna eta errepide horren bide-sistema osagarria hobetu eta garatzea. Eremuan bidegorri bat egongo dela bermatzen da; egungoaren jarraian hasiko da, ekialderantz. Bestalde, 137 aparkaleku egokitu dira titulartasun publikoko lurzatieta. Aparkaleku pribatuak sestra azpian egitea aurreikusi da; gutxienez, 1 aplku. / 100 m² (t)-ko estandarra bermatuta. Oinezkoentzako irisgarritasuna bermatu da hala espazio libre publikoetarako nola proiektatutako eraikin guztietarako, espaloien bidez.

Berdeguneak eta espazio libreak Latxaga eta Zorrotzarrieta errekei lotuta daude, eta 18.695 m² hartzen dituzte, guztira (f.10/5.1 eta f.10/5.4 artean). Sektorearen eraikigarritasuna 30.000 m² (t)-koa dela kontuan hartuta, eremuan 300 zuhaitz landatzea edo kontserbatzea aurreikusi du Planak.

Sektorea urbanizatzeko, 113.800 m³ lur hondeatu eta 81.300 m³ konpentsatuko dira; horrek 32.500 m³-ko lur-soberakina sortuko luke.

Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareen trazadura, bai eta argiteriarena, gasarena eta telekomunikazioena ere, aurreikusitako bide-trazadurak baldintzatuko du. Eremua zeharkatzen duen erdi-tentsioko linea elektrikoa lurperatzea proposatu da.

Alternatibei dagokienez, hasierako dokumentu estrategikoak hiru aukera jasotzen ditu, 0 aukera edo «esku ez hartzea» barne, eta baztertu egin da azkeneko hori, onartutako goragoko maila hierarkikoko plangintza urratzen duelako. Beste bi alternatibak Donostiako HAPOn ezarritako baldintzatik abiatzen dira: Zubieta hiribideari hegoalderantz jarraipena ematea eta bertan aurreikusitako eraikuntza berria sostengatzea. Bi aukera horiek desberdinak dira gehienbat lurzati arteko ezarpen-kotan eta horri lotutako lur-mugimenduetan. Planak garatutako 1. alternatiba aukeratzea justifikatuta dago, 2. alternatibak baino lur gutxiago mugitzea aurreikusi duelako, eta, aldi berean, Udalaren zein jabeen interesak betetzen dituelako.

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezarriko dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; 2020ko IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira Plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Horiek indarrean jarraitzen dute 2030eko Ingurumen Esparru Programako eraldaketa-proiektuetan. Gainera, kontuan hartu beharko dira Planen eta programen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan jasotako irizpideak eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritako helburuak eta printzipioak.

Halaber, kontuan hartu beharko dira Planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute Plana:

- a) Lurzorua zentzuz eta intentsiboki erabiltzea eta lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea, irisgarritasuna sustatuz, lurzoruaren erabileren eta mugikortasunaren plangintza integratuaren eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Lurzorua zigilatzea murriztea, lurzoru jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, baita baliabide horren erabilera jasangarria ere.
- e) Habitata eta espezieak, ingurumen naturala eta konektibitate ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- f) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak leheneratzea eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- g) Paisaia- eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- h) Natura-baliabideen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- i) Energia aurrezte, energia-efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera eta kogenerazioa sustatzea.
- j) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- k) Klima-alaketarekiko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko eta aldagetak egokitzeko neurriak integratuz.
- l) Arrisku naturalak minimizatzea.
- m) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen berme juridikoa eta jardura indartuz.

3. Esparru geografikoa eta ingurumen-garrantziko eremuak

Planaren eremuak 71.274 m²-ko azalera du, Oria ibaiaren ibarraren ezker aldean, Donostiako Hipodromoaren hego-mendebaldean; Merkabugati merkatu nagusiaren, Realak Zubietan dituen kirol-instalazioen eta N-1 errepidearen artean. Topografiari dagokionez, apur bat maldan dauden lursailak dira (mendebaldetik ekialdera), urbanizazioak gutxi eraldatu dituenak (gaur egun hiru eraikin hartzen dituzte), baina zerbitzu-sare guztiak lurpean daude perimetroan. Bestalde, erdi-tentsioko linea elektrikoek zeharkatzen dute eremua.

Litologia ibai-ekintzari lotutako lurretakoa da; porositate bidezko iragazkortasun ertaineko alubioi-metakinak, Oria ibaitik hurbilen daudenetan, eta porositate bidezko iragazkortasun txikiko lutita karedunekin, aldiz, gainerako lurretan. Edafologiaren ikuspegitik, eremuaren zati handi batean landare geruza kontserbatzeak aukera ematen du, Planaren xede diren lurzoru askotan, horizonte edafikoei eta gaitasun agrologikoari eusteko.

ZU.05 HEa Oriako Unitate Hidrologikoan dago, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren barruan (ES017). Oriaren ezkerreko ibaiertzetik hurbil dago, 65 m-ra gutxi gorabehera, gertuen dagoen puntuan, Bugati erretegiaren instalazioen aurrean, eta 175 m-ra urrutien dagoen puntuetan, eremuaren iparraldeko eta hegoaldeko mugetan. Eremuan bi ur-ibilgu daude: Latxaga erreka eta Zorrotzarrieta erreka, biak Oria ibaira isurtzen direnak. Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatze Lurraldearen Arloko Planaren arabera (isurialde kantauriarra), eta osagai hidraulikoa kontuan hartuta, Oriaren tarteak, Bugati aldeko ibilbide osoan, VI. maila du (arroa, $600 \text{ km}^2 < C$). Latxaga erreka 0 maila dagokio (1 eta 10 km^2 arteko arroa), eta Zorrotzarrieta erreka ez dago LAP horretan jasota. Planaren eremuak jabari publiko hidraulikoko zaintza-eremuaren zati bat ukitzen du. Plangintzaren eskumen-arloei dagokienez, eremua erkidego arteko arroen barruan dago; haren eskumena, ur-arloan, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak du eta, hala badagokio, Uraren Euskal Agentziaren esku utziko du. Eremuak ez du ukitzen Plan Hidrologikoak Babestutako Eremuen Erregistroko ezein elementu, eta, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, ez da bertan ur-punturik identifikatu.

Ikuspegi hidrogeologikotik, eremua Andoaingo Oiertzun lurpeko ur-masaren gainean dago (ES017MSBT017-002), Iparraldeko Jabari Hidrogeologiko Antiklinoriokoan, eta EAEko lurpeko ur-masaren Andoaingo Kuaternarioko Sektorea ukitzen du tarteren batean. Ur-masak egoera kimiko ona du, eta egoera globala «ona» da. Planaren eremuak geoEuskadin eta Donostiako HAPOn mugatutako interes hidrogeologikoko eremu bat ukitzen du (C.5 Lurpeko urak babesteko eremuak Baldintza Gainjarria).

Eusko Jaurlaritzaren landaredi-kartografiak (geoEuskadi) landaredi-unitateen mosaiko bat identifikatu du ZU.05 HEan: nekazaritza-laboreak (baratzeak eta fruta-arbolak), basoa (harizti azidofiloa eta harizti-baso misto atlantikoa, ale gazteekin eta degradatuekin), hiri-parkeak eta lorategiak, bai eta belardiak, gainazal urbanoak eta lugorriak ere, non landaredi erruderal nitrofiloa garatzen baita. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Planaren eremuaren iparraldeko erdian harizti azidofiloak daude, tamaina handiko banakoekin, bai eta landare geruza handia duten baso mistoak ere, non inbaditzaileak baitaude, hala nola *Robinia pseudoacacia* eta *Fallopia japonica*. Eremuan, harizti azidofilo-baso mistoko baso-azaleraren zati handi bat C.1d Baldintza Gainjarrian dago: Donostiako HAPOk *Intereseko landaredi-habitatak dituzten eremuak*. Hegoaldeko erdian belardiak dira nagusi, hegal leunetan. Latxaga erreka ertzetan, haltzak eta galeria-basoetako ohiko landaredia daude, inguruko baso mistoarekin nahasten direnak. Eremuan, gainera, etxeko baratze txikiak eta fruta-arbolak, landaredi apaingarriko espezieak eta, eraldatutako inguruetan eta lugorrietan, landaredi erruderal nitrofiloa identifikatu dira; ez da identifikatu mehatxatutako florarik edo Batasunaren intereseko habitatik.

Ez Planaren eremuan, ez haren ingurune hurbilean, ez da identifikatu mehatxatutako fauna kudeatzeko onartutako planen xede den eremurik, ez eta Batasunaren intereseko hegazti nekrofagorik edo Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduaren arabera (2016/05/23ko EHAA, 96. zk.) abifauna babesteko ezarritako eremurik ere. Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, Oriaren ibaiertzetako eremuaren egoera ibai-inguruneetako hegaztien presentziarako egokia izan arren, eremuaren antropizazio handia eta eragin handiko garraio-azpiegiturak ondoan izatea intereseko fauna-espezieen presentziarako traba dira. Beraz, gune oso gizatiartua denez, nonahiko espezieak agertzeko aproposa da; giza presentziara erraz egokitzen diren horiek. Aurkeztutako dokumentazioan, besteak beste, honako hauek aipatzen dira: horma-sugandila (*Podarcis muralis*), sorbeltz arrunta (*Apus apus*), buztanikara zuria (*Motacilla alba*), txolarrea (*Passer domesticus*), arabazozo pikarta (*Sturnus vulgaris*), sagua (*Mus musculus*) edo arratoi arrunta (*Rattus norvegicus*). Baso misto-harizti azidofiloko eremuari lotutako espezieen artean, honako hauek aipatzen dira: *Alytes obstetricans*, *Bufo spinosus*, *Podarcis hispanica*, *Coronella austriaca*, *Elaphe longissima*, *Natrix natrix*, *Falco tinunculus*, *Upupa epops*, *Anthus trivialis*, *Troglodytes troglodytes*, *Hippolais polyglota* eta *Sylvia atricapilla*. Belardien eremuari lotuta, besteak beste, *Passer montanus*, *Streptopelia decaocto*, *Anguis fragilis*, *Lacerta viridis* edo *Mus domesticus* aipatzen dira.

Planaren eremuak ez du ukitzen Natura 2000 Sareko naturagune babesturik, ezta inbentariatutako babestutako edo natura-intereseko beste ezein eremu edo EAEko korridore ekologikorik ere. Hala ere, aipatzekoa da Zorrotzarrieta erreka, Planaren eremutik igarotzen denean, ukitzen duela C7a Baldintza Gainjartzailea: Donostiako HAPOk *Konektibitate Ekologikorako Korridoreak*. Eremuak, bestalde, ez dauka inbentario edo katalogoren batean jasotako paisaia-baliorik, eta ez du ukitzen EAEko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan sartutako interes geologikoko lekurik.

Eremua Astigarragako ikus-arroan dago (091), eta hiru paisaia-unitate bereizten dira bertan: kalitate baxuko urbano-industrial, Bugati erretegiaren inguruan; nekazaritzako eta basogintzako mosaikoa, ibai-jabarian, erreketako baso-eremuak eta nekazaritza- eta abeltzaintza-instalazioak barne hartuta; eta

larreen eta laboreen nekazaritza-paisaia, hegoaldeko eremuan. Planaren eremua ez dago EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan katalogatutako arroen artean (Eusko Jaurlaritza, 2005).

Planaren xede den eremuan ez dago kalifikatutako edo inbentarioan jasotako kultura-ondareko elementurik.

Egoera akustikoari dagokionez, ZU.05 HEari eragiten dion zarata foku nagusia bide-zirkulazioa da. Inpaktu akustikoari buruz aurkeztutako azterketaren arabera, bai gaur egungo agertokian, bai 20 urtera begira etorkizunekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak d) motako eremu akustikoetarako ezarritako etorkizuneko hirigintza-garapenatarako Kalitate Akustikoko Helburuak beteko dira.

Ingurumen-arriskuei dagokienez, eta Uraren Euskal Agentziaren uholde-arriskuaren kartografiaren arabera, Bugati erretegiaren aurrealdeak 500 urteko errepikatze-denborako uholdeen eta Zubieta-Oria Uholdeak Izateko Arrisku Potentzialeko Eremuaren —II. taldea (kodea: ES017-GIP-16-2)— eraginen bat izan lezake. Plan Partzialaren eremuak, Oriako ibai-terrazetan egonik, eta ibilgutik oso hurbil eta alubioi-kolubioien metakinen gainean, arazo geoteknikoak izan ditzake, uholde-arriskuarekin, putzuekin, eusteko gaitasunarekin eta asentuekin lotuta. Era berean, eremuak higadura-arrisku potentzial handia du, eta arrisku hori areagotu egingo da, bertako basoa kendu eta lur-mugimendu handiak eginez gero.

Eremuan ez dago lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioko (geoEuskadin dago eskuragarri) kokalekurik. Beste arrisku batzuei dagokienez, ez da identifikatu honelakorik: sismikotasunaren ondoriozko arriskua, merkantzia arriskutsuak garraiatzearen ondoriozko arrisku handia, baso-sutearen arrisku handia edo akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasun handia edo oso handia duten eremuak.

4. Jarduketak kokatzeko eremu desagokiak

Ingurumenaren ikuspegitik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egokia egin beharko da, haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak eta gune hauskor edo kalteberak ebaluatu ahal izateko; bereziki, ibai-ibilguak, baso autoktonoa, urak har ditzakeen lursailak eta higadura-arrisku handiko eremuak kontuan hartuta.

Ildo horretatik, alde batetik, eremuko landaredi formazioak xehetasunez aztertu beharko dira. 2024/02/12ko txostenean, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak antolamendu-proposamena berrikustea proposatu zuen, alegia, hirugarren sektoreko lurzatieen azalera-okupazioa murriztea, honi jarraikiz: kalterik ez egitea kontserbazio-egoera hobea duten (tamaina handiko zuhaitzen presentzia, zuhaitz-geruza heldua) eta, oso antropizatuta dagoen ingurune batean, funtzionalitate ekologiko nabarmena duten zuhaitz formazioetan behintzat. Eremuan, harizti azidofilo-baso mistoko baso-azaleraren zati handi bat C.1d Baldintzapen Gainjarrian dago: Donostiako HAPOk *Intereseko landaredi-habitatak dituzten eremuak*.

Bestalde, Uraren Euskal Agentziaren 2024/02/20ko txostenarekin bat etorriz, urbanizazioaren eta eremua zeharkatzen duten ibilguen arteko tartea betetzen direla justifikatu beharko da, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Planaren eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren araudiarekin bat etorriz, eta bermatu beharko da, gutxienez, ibilguen zortasun-eremua lurzoru naturala aldatzeko edozein esku-hartzetik libre dagoela. Era berean, azterketak justifikatu beharko du Planaren proposamenek betetzen dutela, 500 urteko errepikatze-denborako uholdeen ondorioz eremuan urpean gera daitezkeen lursailei buruz, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoan xedatutakoa (35/2023 Errege Dekretua, urtarilaren 24koa).

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-analisi laburra

Jarraian, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsultak egiteko izapidetan jasotako txostenetako ingurumen-alderdi garrantzitsuenak laburbildu dira:

Kultura-ondareaz

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirol Departamentuak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi dute ez dela afekziorik antzeman kultura-ondarean.

Natura-ondareaz

Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak antolamendu-proposamena berrikustea proposatu du, alegia, hirugarren sektoreko lurzatieen azalera-okupazioa murriztea, honi jarraikiz: kalterik ez egitea kontserbazio-egoera hobea duten zuhaitz formazioetan behintzat. Ezin bada proposatutako antolamendua guztiz berrikusi, eta eusten bazaio hariztiko eta baso mistoko eremuen inguruko afekzioaren bati, azalera eta funtzionaltasun ekologikoa kontuan hartuta kuantifikatu beharko da hura, inpaktuaren magnitudeari egokitutako zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak zehazteari begira.

Obrek aldi baterako eragindako eremuen ingurumena leheneratzeaz gain, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak ondorioztatu du baso autoktonoaren inguruko afekzioa konpentsatzeko neurriak planteatu behar direla, eta adierazi du Zuzendaritzaren irizpidea dela, horrelako kasuetan, «1 kendu eta 2 jarri» konpentsazio bat eskatzea, azaleraren eta funtzionaltasun ekologikoaren galera aintzat hartu ahal izateko.

Plan Partziala eta ingurumen-azterketa estrategikoa idazteko, txostenak honako argibide hauek ematen ditu:

- Idatzi beharreko ingurumen-azterketa estrategikoak zuzenketa- eta konpentsazio-neurrien proposamen xehatua jaso beharko du, eta, gutxienez, horiek zein eremutan gauzatuko diren eta leheneratzea zein irizpide nagusik gidatu beharko duten (espezie autoktonoak erabiltzea, landaketak gutxienez bi urtez mantentzea eta abar) identifikatu beharko du. Bestalde, hirigintza-dokumentuak zehaztu beharko du ingurumen-azterketa estrategikoak ezarritako irizpideen arabera leheneratze-proiektu bat egin beharko dela.
- Plan Partzialak, antolamendu berriaren oinplanoko okupazioaz gain, ZU.05 Bugati HEko espazio libreek izango duten tratamendua ere zehaztu beharko du, eta naturalizatutako guneak mantentzeko tratamendua lehenetsiko da. Ingurumen-azterketa estrategikoak alderdi hori kontuan hartuko du, eraginak baloratzeko eta zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatzeko.
- Detektatutako flora aloktono inbaditzaileko espezieak desagerrarazteko hartu beharreko neurriak zehaztu beharko dira; bereziki, *Fallopia japonica* espezieari dagozkionak. *Robinia pseudoacacia* espeziearen aleak ezabatu egingo dira, baldin eta lan horrekin ez bazaie eragiten haiek dauden zuhaitz-masen egiturari eta funtzionaltasunari.
- Komeni da Latxaga eta Zorrotzarrieta erreken ibilgua eta ibaiertzak, HEa zeharkatzean, ahal den neurrian naturalizatzeko neurriak hartzea.

Lurrazaleko urez

Uraren Euskal Agentziak honako gogoeta hauek egin ditu bere eskumeneko alorrez:

- Ondorioztatu da ez dela aurreikusteko modukoa Plan Partzial hau onartzearen ondoriozko jarduketek inpaktu adierazgarririk eragitea ingurune hidrikoan, baldin eta prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurri egokiak aplikatzen badira, txostenean aipatzen direnak bezalakoak; neurri horiek Plan Partzialean eta ingurumen-azterketa estrategikoan jaso beharko dira, ondoren xehetasun handiagoz garatzeko eta dagozkien eraikuntza-proiektuetan horien aurrekontua egiteko.
- Aurreko puntuari dagokionez, ekologia- eta paisaia-integratioko proiektuak (egiteko dagoena eta etorkizuneko eraikuntza-proiektuen parte izan beharko duena) kontuan hartu beharko du ingurune hurbilean landaredi naturalaren galera konpentsatzea, gutxienez eragindako ehuneko berean, eta eremu horretako landaredi exotiko inbaditzailea kentzea.
- Ingurumen-azterketa estrategikoa eta Plan Partzialaren behin betiko memoria egiteko, urbanizazio- eta eraikuntza-obren eta gaur egungo ibilguen arteko tartea zehaztu beharko dira, dokumentazio idatzian zein grafikoa, Lurraldearen Arloko Planaren eta Jabari Publiko Hidraulikoaren araudian ezarritakoa betetzeko eta, gutxienez, ibilguen zortasun-eremua lurzoru naturala aldatzeko edozein esku-hartzetik libre dagoela bermatzeko.

- Latxaga errekaaren gaineko pasabide berria zubi gisa egin beharko da, haren gainean, Plan Hidrologikoaren 47. artikuluan adierazitakoa betez.
- Hirigintza-garapen berriek zoladura-azalera edo okupazio-azalera iragazgaitza murriztu beharko dute, eta behar-beharrezkora mugatu, eta drainatze jasangarriko sistemak txertatu beharko dira.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Horren arabera, garatzen diren apartatuek honako eskema metodologiko hau bete beharko dute:

1. Proposatutako Planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-alternatibak
2. Ingurumenaren ezaugarrien zehaztapena
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-efektuak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, ondorioztatu da Azterketak honako alderdi hauetan sakondu beharko duela jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

6.1. Planaren deskribapena

Deskribatu beharko da zer alderdik osatzen duten Plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzearen ondoriozko etorkizuneko ekintzetatik zeinek dakarten ingurumenean ondorio kaltegarriak izateko arriskua. Hori guztia honako atal hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruzko laburpen txiki bat barne hartuko du Azterketak. Gainera, labur-labur azaldu beharko da nola hartu diren kontuan, Plana egitean, ingurumena babesteko helburuak eta jasangarritasun-printzipio eta -irizpideak, txosten honetako 2. apartatuan jasotakoak.

b. Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira Planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikagarri zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Adierazi beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden plan edo programen onespren-egintzek, eta zehaztuko da plan edo programa horiei ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin zaien ala ez.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita Plana garatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko Planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztu beharko da; halaber, zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren zehaztuko da, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.

d. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan (Batasunekoak, Espainiakoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, besteak beste, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala (Donostialdea-Bidasoa Beherea).
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Jarduera Ekonomikoak eta Saltokiak Antolatzeko EAEko Lurralde Plan Sektoriala.
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala.
- Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2022-2027).
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-kutsadurari buruzkoa.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu beharko du. Azterketak Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen xehea egingo du, eta haiek lotura izan beharko dute Planaren eraginpeko eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduarekin alderatuta dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzaizkete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak aintzat hartuta.

Behar besteko xehetasunez deskribatuko dira Planak azkenean hartutako garapen-alternatiba eta haren ondoriozko jarduketa zehatzak, eta hartutako hirigintza-soluzioa justifikatu beharko da.

b. Planaren proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketaren ezaugarriak buruzko aurreikuspen bat egingo da.

Azterketak, hala badagokio, Plana esparru duten eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten proiektuak identifikatu beharko ditu, eta garapen-baldintzak eta proiektu horiek garatzeko unean ahalik eta afekzio gutxien sortzeko jarraibideak ezarri beharko ditu.

c. Ingurumenean ondorioak izan ditzaketen Planaren ekintzak deskribatu eta kokatu egingo dira, eta garrantzi handienekotik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako Planaren ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, haren erreferentzia behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita Planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusi beharko da garapen-tresna edota -proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusi den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe horretan bildutako informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera adierazi beharko da, baita ingurumen-eragin nabarmenak ekartzeko arriskua duten Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da eta, gutxienez, honako hauek jasoko ditu: eremuaren mugaketa, zonakatze zehatza eta jarduketa guztien kokapena, pdf (georeferentziatuta) eta *shape* formatuetan, berrikuspen-lana errazteko.

6.1.3. Plangintza-alternatibak

a. Azaletik deskribatuko dira Plana emateko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba guztiak. Alternatiba horiek bideragarriak izan beharko dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 alternatiba edo esku ez hartzeko alternatiba ere hartuko da kontuan. Kasu horretan, honako hau izango da

erreferentzia: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera Planaren proposamenak aplikatu ezean.

b. Alternatiba horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen, batetik, alternatiba bakoitzetik eratorritako Planeko proiektuen eta ekintzen eta, bestetik, 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuen eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzen artean.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

d. Aztertutako alternatibak modu kartografikoan jasoko dira.

6.2. Ingurumen-egoeraren zehaztapena

Azterketak deskribatu beharko du nolakoa den ingurumenaren uneko egoera (alderdi nagusiak azalduta) Planaren eragin-eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai haien elkarreraginaren ikuspuntutik, eta ingurumenaren uneko egoeraren ikuspegi integratua emango da.

Planaren eraginpeko eremutzat hartuko da, antolamendu-eremu osoaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena, Planaren ekintzek ingurumen-eragin nabarmenak izan ditzaketen gunetara mugatuta.

Ingurumen-kalitatearen inguruko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatu beharko da, eta adieraziko da zein den izenburua, urtea eta egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana osorik kontsultatzeko.

Azterketak ingurunearen aldagaiak bilduko ditu, eskala egokiko planoetan.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako ingurumen-alderdi hauek hartuko dira kontuan, gutxienez:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, masak eta ur-puntuak, ingurune hidrikoaren inbentarioa (azaleko eta lurpeko ur-masak), faktore klimatikoak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Jasota utziko dira dauden natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak, hala nola ibaien ibilguak, Batasunaren intereseko habitatak, landaredia, mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, naturagune babestuak, hezeguneak, interes geologikoko lekuak eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, bai eta interes-mailari, urrakortasunari eta gaur egungo presioei eta arriskuei buruzko datuak ere, eta Plana gauzatzearen ondorioz areagotzeko arriskua ote duten adieraziko da.

Ildo horretatik, zehatz-mehatz deskribatu beharko da hartutako antolamendu-alternatibak zer landarediri eragingo dion, landare mota bakoitzaren okupazio-azalera, kontserbazio-egoera eta funtzionaltasun ekologikoa adierazita.

Eremuko landaredi aloktono inbaditzaileko espezie guztiak identifikatu beharko dira.

c. Paisaia. Pertzepzioaren ikuspuntutik intereseko elementurik dagoen aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso diren datu guztiak emango dira, hala nola lurpeko uren kalteberatasunari, uholde-arriskuari, arrisku geoteknikoei, klima-aldaketak eragindako arriskuei edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arriskuri buruzkoak.

Halaber, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez, antzemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak izan dituzten lurzoruak eta kutsagarriak izan daitezkeen iturriak identifikatuko dira, eta natura-baliabideen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki, urarena.

Arreta berezia eskainiko zaie landaredi autoktonoko formazioei (erriberako landaredia, baso mistoa eta hariztia, batzuetan tamaina handiko haritzak dituztenak), baita flora-espezie inbaditzaileei ere, hala nola

Robinia pseudoacacia eta *Fallopia japonica* espezieei. Era berean, kontuan hartu beharko dira Oria ibaiarekin lotutako uholde-arriskutik eta higadura handia izateko arrisku potentzialetik eratorritako arriskuak (azken arrisku hori areagotu egingo da oraingo basoa ezabatu eta lur-mugimendu handiak egiten direnean).

Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean bereziki egon daitezkeen eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Antzemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, babes-tresna eta babes-maila adieraziko dira. Era berean, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babesa ematen dizkion arau-xedapena ere aipatuko da.

f. Atal honetan, gainera, beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira; hala nola, mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia eta abar), biztanleguneak (halakorik bada), ukituta gerta daitezkeen biztanleria eta abar.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko atalean azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta laburki jasoko da zein diren Planeko jarduketaren ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoerei, baita eragina jasateko arriskua duten alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira Planean jasota dauden jarduketaren ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Azterketak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak hauteman beharko ditu, proposamenak horietara egokitzeke.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak eta eremu hauskor edo kalteberak ebaluatzeke. Atal hau idazteko, txosten honen 3. atalean aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Kasu horretan, Planak planteatzen dituen jarduketaren garapena baldintzatu dezakete honako hauekin lotutako alderdiek: itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren eta haren babes-zortasunaren babesa, uholde-arriskua eta eremuaren kalitate akustikoa. Beraz, Azterketan alderdi horiek aztertuko dira.

6.3. Proposatutako Planaren ingurumen-ondorioak

a. Apartatu horretan, identifikatu eta baloratuko da zer ondorio izan ditzaketen Planaren ekintzek 6.2 apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta ondorio horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta haien ezaugarriak deskribatzeko, azterketa bat egingo da jakiteko zer-nolako elkarreragina dagoen bertan aurreikusitako ekintzen eta eragina izateko arriskuan dauden ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, baita zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitezkeen jakiteko ere.

Ezaugarrien deskribapenean, zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako ondorioak dauden, honako hauek bereizita: nahi ez diren ondorioak, metaketakoak, ondorio sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako ondorioak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterako ondorioak.

Azterketaren 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta berariaz aipatuko da apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea.

Hala dagokionean, zenbait ekintzaren konbinaziotik eratorritako ondorioak zehaztuko dira. Gainera, ingurumen-izaerako edozein ondorio bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen inguruan ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Horrela deskribatutako Planaren efektu bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, haren erreferentzia behar bada.

Besteak beste, afekzio hauek ebaluatuko dira bereziki:

- Ingurumen-azterketa estrategikoak landaredian sortutako eragina aztertu beharko du, batez ere eremuko balio handieneko zuhaitz-masa autoktonoetan sortutakoa. Eragina

baloratzeko, eragindako formazioen azaleraz gain, horien balio ekologikoa ere hartuko da kontuan. Ezin bada proposatutako antolamendua guztiz berrikusi (hariztiko eta baso mistoko eremuen inguruko afekzioa saihesteko), azalera eta funtzionaltasun ekologikoa kontuan hartuta kuantifikatu beharko da afekzio hori, inpaktuaren magnitudeari egokitutako zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak zehazteari begira..

- Hondeaketen eta lur-mugimenduen ondoriozkoak, obrako soberakinak eta hondakinak sortzearen ondoriozkoak; bereziki, aurreikusitako hondeaketa-soberakinen kudeaketatik eta higadura handia izateko arrisku potentzialetik eratorritakoak. Arrisku hori areagotu egingo da oraingo basoa kendu eta lur-mugimendu handiak eginez gero.
- Espezie aloktono inbaditzaileak barreiatzeko arriskua aztertuko da.
- Ibilguen eta haien ertzen inguruko balizko afekzioak aztertuko dira.
- Garapenak ingurunean eragingo duen paisaia-eragina aztertuko da.
- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da aurreikusi diren erabileretan zer mailatan beteko diren Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako Kalitate Akustikoko Helburuak. Egiaztatu beharko da etorkizunean Kalitate Akustikoko Helburuak bete ahal izango direla Planaren antolamendu-eremuan, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 37. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoari jarraikiz. Ingurumen-azterketa estrategikoak informazio hau izan beharko du:
 - Soinu-iturrien analisia, arauaren 38. artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - Diseinu-alternatiben azterketa bat, arauaren 39. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.
 - Kalitate Akustikoko Helburuak lortzeko behar diren neurrien definizioa, izapidetzen den antolamendu motara egokitua.
 - Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren I. eranskinaren I. zatiko A taulan ezarritakoaren arabera, kanpoaldean aplikatu beharreko Kalitate Akustikoko Helburuak lurretik 2 metroko garaieran neurtuko dira; leihodun fatxaden kanpoko aldean, berriz, eraikinaren altuera guztietan neurtuko dira.
- Ustiapen-fasean, eremuan jarduera handitzearen ondoriozko eraginak izan daitezke, eta horrek hondakinen sorrera eta ur- eta energia-kontsumoa handitzea ekarriko du, bai eta eragindako mugikortasuna eta soinu-mailak handitzea ere. Ingurumen-azterketa estrategikoak eragin horiek ere aztertuko ditu.

b. Identifikatu eta kodetutako efektu bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Efektuen magnitudea eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitekeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - ✓ Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
 - ✓ Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrek edo muga-balioak gaindi ditzakeenik.
 - ✓ Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, ondorioak kuantifikatuko dira, eta, horretarako, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-ondorioen egoera-aldaketei buruzko datu neurgarriak erabiliko dira. Hala badagokio, eragin horien iragarpenean zer ziurgabetasun-maila dagoen adieraziko da.

c. Halaber, ahal den neurrian, efektuak kartografikoki lokalizatuko dira, eta, orobat, saiatuko da lotzen plan edo programaren zer fasetan gerta daitezkeen.

d. Adieraziko da detektatutako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Horrela deskribatutako ingurumen-ondorioak hierarkizatuko dira, eta horien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu horretan, deskribatuko da zer neurri aurreikusi den Azterketaren 6.3 apartatueta deskribatutako ingurumen-eragin kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu beharko dute ez dela ingurumen-eragin garrantzitsurik sortuko, Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta detektatutako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek aurreikusitako ingurumen-ondorioekiko koherenteak izan beharko dute. Neurriak deskribatuko dira, eta Azterketaren 6.3 apartatuan identifikatutako ondorioekin —prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin— lotuko dira. Bereziki, besteak beste, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Natura-ondarearen babesari dagokionez, ingurumena eta paisaia leheneratzeko plan bat idatzi beharko da, Planaren gauzatzearen ondorio guztietarako (aurrekontua barne). Ildo horretan, ingurumen-azterketa estrategikoak berdeguneak behar bezala tratatzeko eta leheneratzeko neurri zehatzak identifikatuko ditu, espezieak, landaketa-esparru egokia, mantentze-lanak eta abar adierazita, xehetasunez garatu ahal izan daitezen eremuaren etorkizuneko urbanizazio-proiektuari lotutako leheneratze-proiektu batean. ZU.05 Bugati HEko espazio libreetan naturalizatutako guneak mantentzeko tratamendua lehenetsiko da.

Planaren garapenaren ondoriozko obrek aldi batez eragindako eremuak leheneratzeko zehazten diren zuzenketa-neurriez gain, baso autoktonoari eragindako afekzioaren ondorioz sortzen diren hondar-inpaktuak konpentsatu beharko dira, konpentsazio-neurriak zehaztuz. Horretarako, ekologia- eta paisaia-integratioko proiektuak jarduketak integratzea eta eremuaren barruan zein ingurune hurbilean landaredi naturalaren galera konpentsatzea jaso beharko ditu. Landaredi autoktonoko formazioen galera «1 kendu eta 2 jarri» ratioan konpentsatuko da, azaleraren eta funtzionaltasun ekologikoaren galera kontuan hartu ahal izateko. Ingurumen-azterketa estrategikoak neurri horien proposamen xehatua jasoko du, eta, gutxienez, horiek zein eremutan gauzatuko diren eta leheneratzea zein irizpide nagusik gidatu beharko duten (espezie autoktonoak erabiltzea, landaketak gutxienez bi urtez mantentzea eta abar) identifikatu beharko du.

Era berean, detektatutako flora aloktono inbaditzaileko espezieak desagerrarazteko hartu beharreko neurriak zehaztu beharko dira; bereziki, *Fallopia japonica* espezieari dagozkionak. *Robinia pseudoacacia* espeziearen aleak ezabatu egingo dira, baldin eta lan horrekin ez bazaie eragiten haiek dauden zuhaitz-masen egiturari eta funtzionaltasunari.

Era berean, Latxaga eta Zorrotzarrieta erreken ibilgua eta ibaiertzak ahal den neurrian naturalizatzeko neurriak hartuko dira.

- Eremua zeharkatzen duten ibai-ibilguen babesari dagokionez, Plan Partzialaren eta ingurumen-azterketa estrategikoaren idatzizko dokumentazioan zein grafikoa, urbanizazio- eta eraikuntza-obren eta gaur egungo ibilguen arteko tartea zehaztu beharko dira, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Planaren eta Jabari Publiko Hidraulikoaren araudian ezarritakoa betetzeko eta, gutxienez, ibilguen zortasun-eremua lurzoru naturala aldatzeko edozein esku-hartzetik libre dagoela bermatzeko.

Latxaga erreken gainean aurreikusitako pasabidea zubi gisa egin beharko da haren gainean, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan

Hidrologikoaren 47. artikuluan adierazitakoa betez (35/2023 Errege Dekretua, urtarrilaren 24koa).

Lur gaineko uren kalitatea babesteko neurriak garatuko dira, kontuan hartuta obrek lurrazaleko sistema hidrologikoan eragin ditzaketen afekzioak, batez ere, lur-arrasteekin eta obretan sortu eta ibilguetara iritsi daitezkeen hondakinen kudeaketa txarrekin lotuta egongo direla. Proposatutako neurriak Uraren Euskal Agentziak baloratuko ditu Plan Partzialaren ingurumen-izapidearen hurrengo fasean, eta, azken buruan, urbanizazio- eta eraikuntza-proiektuan. Azken proiektu horrek Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko obra-baimena izan beharko du, agentzia horretan izapidetu beharrekoa.

Plan Hidrologikoaren araudian ezarritakoa (48. artikulua) kontuan hartuko da, honako honi dagokionez: hirigintza-garapen berriek behar-beharrezkoak diren azaleretara mugatu beharko dute zoladura edo okupazio iragazgaitza, eta lehendik zegoen egoerarekin alderatuta jariatze-urak ugaritzen badira, hori konpentsa daitekeela edo garrantzirik gabekoa dela bermatuko duten drainatze jasangarriko sistemak erabili beharko dituzte (zoladura iragazkorak, andelak edo ekaitzetarako gailuak eta abar). Horrez gain, sortutako jariatze-uren tratamendua aurreikusi beharko dute. Oro har, gainazal iragazkorren gutxieneko ehunekoa % 20koa izango da espaloietan, eta % 35koa, plaza eta hiri-berdeguneetan. Alderdi hori etorkizuneko urbanizazio-proiektuari lotutako jarduketaren definizioa adierazten den hirigintza-araudian jaso beharko da.

Jabari publiko hidraulikoa kutsatu dezaketen euri-urak hondakin-ur moduan hartuko dira, eta administrazio hidraulikoaren aurrean isurketak baimentzeko prozedura bete beharko dute.

- Uholde-arriskuari dagokionez, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoaren zehaztapenak bete beharko ditu Planak (35/2023 Errege Dekretua, urtarrilaren 24koa).
- Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaian indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Hala badagokio, Kalitate Akustikoaren Helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko Hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera eta eremu akustikoak eta erabilera aurreikusiak kontuan hartuta.
- Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenarekin bat etorritik, klima-alaketan izan lezakeen eragina arindu eta hartara egokitzeko neurriak barne hartuko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak. Xede horrekin, lhobek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: *Klima-alaketara egokitzeko udal-programak egiteko gidaliburua. Udalsarea 21 lan-koaderno* eta *Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-alaketa arintzeko eta klima-alaketara egokitzeko*.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurri guztiak zehaztuko ditu eta horien aurrekontua jasoko du; neurri horiek Plan Partzialaren dokumentazioaren parte izan beharko dute.

c. Adieraziko da Planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta berariaz zehaztuko da Planaren zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko diseinatzen diren etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio- eta zuzenketa-neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta adieraziko da zein den horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona.

6.6. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izango da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen efektu kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.

- Ingurumen-elementu garrantzitsuen zein Plana martxan jarri aurreko ingurumen-arazoen bilakaera zaintzea.
- Plana gauzatzearen ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko ondorio kaltegarriak azkar identifikatzeko, baita horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartzeko ere.
- Plana gauzatzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den aztertzea.

b. Jarraipen-neurriak identifikatuko dira, eta neurri horiek bat etorri beharko dute Azterketaren 6.4 apartatuan jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren Azterketan, baita zer proposamen zehatz egiten den ere, kasu bakoitzean datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruz.

6.7. Ingurumen-laburpena

a. Ingurumen-alderdiak Planean nola txertatuko diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola bete diren Azterketaren 6.1.1 apartatuan ingurumena babesteko deskribatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen Planak etorkizunean ingurumenean efektu nabarmenak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- edota konpentsazio-neurriak Planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela efektu nabarmen horiek gertatzeko, eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik Plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, Azterketaren gainerako apartatueta jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez teknikoa

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez tekniko bat, zeinak ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko baitu.

b. Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioaren izapideak eta kontsultak

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan ezarritako epeen ondorioetarako, organo substantiboak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, baita ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 egun balioduneko epean.

Era berean, organo substantiboak, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gutxienez, irismen-dokumentu hau egiteko kontsultatu egin zaien administrazio publiko ukituen eta interesdunen eskura jarriko ditu Planaren hasierako bertsioa eta ingurumen-azterketa estrategikoa, azter ditzaten. Hona hemen egindako kontsulten zerrenda:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetza. Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.
- URA. Uraren Euskal Agentzia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia
- Ekologistak Martxan
- Eguzkizaleak elkarte (Eguzki)
- “Haritzalde” Parkeen Lagunak elkarte naturalista
- Áncora elkarte
- Itsas Enara ornitologia elkarte

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organoari, honako hauek barne hartuta: planaren edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak eta laburpen-dokumentu bat, non azalduko den planaren edo programaren azken proposamenean hainbat alderdi nola txertatu diren (ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat).

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarrena. - Donostiako Udalari ebazpen honen berri ematea.

Hirugarrena. - Agindua ematea ebazpen hau argitara eman dadin Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 13a.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria.

Aitor Aldasoro Iturbe

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea

(otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren bidez)